



## HILEROKO KUOTA FINKO BIDEZKO ORDAINKETAREN BALDINTZAK

Honako baldintza hauek atxikitako gutunean adierazitako Hornidura-kontratuaren Bezero titularraren eta IBERDROLA CLIENTES, S.A.U.-ren artean (aurrerantzean, IBERDROLA), aipatutako Kontratu horren arabera fakturatutako zenbatekoak hileroko kuota finko baten bitartez ordaintzeko.

**Hileroko ordainketa:** IBERDROLAK, hileroko Bezeroak Hornidura-kontratuko Baldintza Partikularretan adierazitako bankuko kontuan une bakoitzean indarrean dagoen Kuota finkoaren zenbatekoa kargatuko du. Aurrekoari kalterik egin gabe, IBERDROLAK dagokion horniduraren faktura jaulkiko du, kontsumitutako energiaren eta zerbitzuen prezioa eta aplikagarri diren bestelako kontzeptuak jasoko dituen, Kontratuan adierazitako aldizkakotasunaz. Faktura horren zenbatekoak informazioa emateko helburua izango du eta ordainketak fakturazioaren gutzizko zenbatekoarekin erregularizatzean aintzat hartuko da. Hileroko kuota finko bidezko ordainketa-modalitateak ez dio kontratu motari, aplikatu beharreko prezioari edo kontsumoen irakurketaren maiztasunari eragiten, ezta Kontratuan aurreikusitako bestelako edozein baldintzari ere.

**Betekizunak:** Hileroko kuota finko bidezko ordainketa aplikatzeko une oro honako betekizun hauekin bat etortzea beharrezkoa da:

- Ordainagiriaren ordainketak bankuko kontuan helbideratuta egon behar du.
- Hornikuntza-kontratuaren titularrak eta ordaintzera behartutako helbideratutako banku-kontuaren titularrak bat etorri behar dute.
- Bezeroak ezin du ordaindu gabeko iraugitako fakturarik izan. Hileroko kuota finkoaren bat ez ordaintzekotan balio gabetu egingo da, dagokion atalean adierazitako efektuekin.

**Kuota finkoaren zenbatekoa:** Kuota finkoaren hasierako zenbatekoa dokumentu honetan adierazten dena izango da eta sei hilean behin eguneratuko da. Ezartzeko, Bezeroaren aurreko urteko fakturazioa oinarritzat hartuko da. Erreferentziako fakturaziorik ezean, zenbatekoa tarifa eta kontratatutako tarifa aintzat hartuta balioetsiko da.

**Eguneratzea:** Ordaindu beharreko kuota finkoaren zenbatekoa SEI (6) HILEAN behin berrikusiko da, gora, behera edo bere horretan uzteko, hasierako zenbatekoa edo segidako eguneratzeak ezartzeko aintzat hartutako kontsumo-patroiaren balizko aldakuntza aintzat hartuta. Eguneratzeetik eratorritako ordaindu beharreko kuota finkoaren zenbatekoa Bezeroari jakinaraziko zaio eta honek, ados ez badago, balio gabetzea eskatu ahal izango du.

**Erregularizazioa:** Urtean behin egindako ordainketak jaulkitako fakturen zenbatekoekin erregularizatuko dira. Horretarako, indarrean sartzen denetik edo aurreko erregularizaziotik 12. hilabeteari dagokion fakturan, IBERDROLAK emaitzako saldoa adieraziko du. Ordaindutako zenbatekoak fakturatutakoa gainditzen badu, IBERDROLAK ez du 12. hilabeteko kuota finkoa kargatuko eta Bezeroari aldea ordainduko dio, azken 90 benetako irakurketarik ez badago salbu; kasu horretan hurrengo erregularizazioan konpentsatuko da.

Fakturatutako zenbatekoak ordaindutakoa gainditzen badu eta aldeak hileroko kuota finkoa %150ean gainditzen badu, aldea ken hamabigarren hilabeteko kuota finkoa hileroko kuota finkoari gehituta kargatuko da, Bezeroaren bankuko kontuan, HAMABI (12) hileroko kuotatan zatituta, 12. hilabetetik aurrera, kargu bakarra adierazten bada salbu. Hileroko kuota finkoa %150ean gainditzen ez badu 12. hilabeteko kuota finko gisa kargatuko da zuzenean.



**Iraupena eta baliogabetzea:** Ordaindu beharreko kuota finkoa Hornidura-kontratuaren indarraldian aplikatuko da, Bezeroak edozein unetan baliogabetzea eskatzen ez badu; kasu horretan baldintza hauetan ezarritako moduan erregularizatuko da eta Bezeroak hurrengo hornidura-fakturen zenbatekoa ordaindu beharko du, bere Kontratuan aurreikusitako moduan.

Halaber, ordainketa-kuota finkoa baliogabetzeko arrazoiak izango dira:

- Hileroko kuota finko bat ez ordaintzea.
- Kontratuaren titulartasun-aldaketa.
- Hornidura-kontratuaren baldintzen aldaketa: kontratatutako potentziaren edo tarifaren aldaketa.
- Ordainketen bankuko helbideratze-agindua ezeztatzea.
- Kontratuaren baja.

Honen izenean eta honen ordeztuz: \_\_\_\_\_  
IBERDROLA CLIENTES, S.A.U. \_\_\_\_\_

{Firma} \_\_\_\_\_  
{Nombre} \_\_\_\_\_  
{Cargo} \_\_\_\_\_